

Salda badago! Euskal Herriko V. Jardunaldi feministak liburuaren aurkezpena Durangon

SALDA BADAGO! :: 16/02/2021

Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministen harira, ia 3.000 feminista elkartu ziren 2019ko azaroaren 1ean, 2an eta 3an, mugimendu zein borroka feministari buruzko hausnarketak partekatzeko eta aurrerantzean urratu beharreko bideez eztabaidatzeko. Esperientzia kolektibo itzela izan zen. Nolanahi ere, joaterik izan ez zuten kide feminista asko egon ziren.

Salda Badago! ekimena jaso nahi izan dugu gaur, otsailaren 15ean, Durangon aurkeztu dugun liburuan. Ez soilik 3 egun haietan bizitakoa, baizik eta haraino heltzeko prozedura eta ibilbide osoa. Argitalpenean esaten dugun moduan, helburua “Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan bizitakoa ordenatzea zein berreraikitzea, Durangoraino eraman gintuen prozesuaren interpretazio kritiko bat egitea eta hortik irakaspenak ateratzea eta elkarbanatzea” izan da. Memoria eraikitzen joateko saiakera bat da aurkeztu dizueguna, egin duguna aitortzeko nahiz etorkizunari begiratzeko.

Hortaz, esperientzia hori erregistratzeaz gain, Euskal Herriko Mugimendu Feministaren ibilbidean aurrera egiteko tresna bat sortu nahi izan dugu. Emagin ikerketa eta formazio feministarako elkartearen eskutik, prozesu honen sistematizazio lan bat burutu dugu. Horretarako, epistemologia feministak eta Abya-Yalan herri-prozesuak aztertzeko erabilitako prozedurak aplikatzen saiatu gara. Askotariko iturriak baliatu ditugu horretarako, besteak beste, eztabaida taldeak, inkesta, errebisio bibliografikoa, ponentzien analisia eta parte-hartze datuen azterketa.

Liburu honetan aztergai ditugun jardunaldietan jasotako eduki politikoez gain, prozesuan emandako urratsak irakurri ahal izango dituzue: Euskal Herriko Mugimendu Feministaren azken urteetako ibilbidea, koordinadoraren sorrera eta antolakuntza eredua, aurrekontuaren kudeaketa, euskara erdigunean jartzeko egindako proposamenak, erasoen protokoloa, estrategia komunikatiboa eta Durangoko azpiegitura taldearen lekukotza. Liburu berean euskara eta gaztelera itzulpenak biltzen dira.

Gainera, “Mugimendu Feministaren erraiei begira” ardatzean burututako asanblada parte hartzaileetan egin ziren milaka ekarpenak sintetizatzen dituen kontzeptu mapa zabalgarria eta ilustratua darama ale bakoitzak. Gaur Durangoko San Agustineko kultur gunean egin dugun aurkezpenean, Salda Badago! Lantaldeko eta Emagineko kideen eskutik azaldu ditugu argitalpenaren helburuak eta erabilitako metodologia. Ondoren, jardunaldien antolakuntzaren parte izandako kide ezberdinen gogoeta jasotzeko mahai ingurua zabaltu dugu, horien artean izan dira: Jeanne Roland, Garaipen taldeko kide feminista antiarrazista; Begoña Zabala,

Emakume Internazionalistak-eko kidea; Maider Barañano eta Marina Urkidi, Euskal Herriko Neska Gazteen Sareko kideak; eta Ane Amantegi Durangoko azpiegitura lantaldeko kidea. Hainbat ekarpen egin dituzte prozesuaren kontaketa osatzeko eta Jardunaldiak utzi zituzten irakaspenak eta etorkizunerako lan-ildoak eztabaidatu dituzte. Hau ez da izango aurkezpen bakarra. Datozen hilabetetan Euskal Herriko txoko desberdinetan liburuaren aurkezpenak izango dira; besteak beste, Ondarroan, Arrasaten, Zumaian, Oreretan, Oiartzunen eta Zizuren.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/salda-badago-euskal-herriko-v